

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Mira

Mikele López de la Hoz

Joan zen argia zurekin,
desagertu zen nire itzala;
bakarrik geratu nintzen,
lur izoztuan etzanda.

Une oro buruan nuen
zure azken besarkada,
ezin ahantzi zure eskuak
laztanduz nire azala.

Ohitu zait azkenik
ilunpera begirada,
distira berriak ari dira
ordezten zure izarra.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA POESÍA 14-16 URTE

BIGARREN SARIA

Baina ez dut onartu nahi
iluntasuna gustatzen zaidala;
zure usain eta ahotsa
betiko ahaztu ditudala.

Azkenaldian izan dut
zu bueltatzeko beldurra.
Ezin baitut ukatu jada
zure mira ez dudala.